

2009ko abenduaren 22a
31. zk.

Eusko Jaurlaritzaren Lanhitzeko diru laguntzak

HPSko diru laguntzen justifikazioa egiteko informazioa azaldu nahi dizuegu hemen, laburtuta bada ere.

- **Aurkezteko epea: 2010eko urtarrilaren 31 da azken eguna** aurkeztu behar den guztia entregatzeko.

- Justifikatu beharreko **kontzeptuak** hauek dira, eskaeraren arabera: itzulpenak, batzarretako aldi bereko itzulpen zerbitzua, lanari lotutako hizkuntza trebakuntza orokorra, laneko berariazko prestakuntza ikastaroa euskaraz, softwarea, plangintzaren jarraipena, ebaluazioa, inplementazioa eta egokitzapena, eta bestelakoak.

-Kontzeptu bakoitzerako **aurkeztu beharrekoa**: deialdian eskatzen diren agiriak (aitorpenak, itzulpenak, ebaluazio txostenak...), gastuen fakturak, fakturarik ez duten gastuen justifikagiriak.

- Horietaz gain, **aplikazio informatikoan ebaluazioaren atala bete** behar da eta balidatu.

Edozein zalantza izanez gero, lasai jo Oarsoaldeko Euskara Zerbitzura (amaiar@emun.com) eta argituko dugu.

Urte berriari ekin euskaraz!

**Gabonetan ongi pasatu
eta urte berrian,
ametsak egia bihurtu, euskaraz arituz.**

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

OLA planeko enpresen agerkaria



Hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntzen kudeaketa

Hizkuntza-aniztasun prozesua berria da gure artean baina dagoeneko asko eta azkar hedatzen ari da inguruko enpresetan. Badatorren gai bat da. Euskara planetatik gertakizun berri honi nola erantzun behar diogun zalantza eta kezka sortzen zaigu eta hizkuntzak nola kudeatu eta euskara nola babestu aztertu beharra dugu. Hona hemen gaiaren inguruko omentzelada batzuk:

Hizkuntza-aniztasuna munduan:

Hizkuntzalarien arabera, munduan 6.000 hizkuntza inguru daude, 220 bat estatutan banatuta. Horietatik ia %82k 100.000 hitzun baino gutxiago ditu.

Hizkuntza horien guztien iraunkortasuna edo ezintasuna ez dago bere erabazgarrien baitan, baizik eta kokatzen den ekosistema soziokulturalaren baitan.

Honela, **hizkuntza-politkarik** eraginkorrena **eleoniztasuna** ondo kudeatzen duena da. Kontuan hartu behar da enpresak bere berrikatze-jardunak non bideratu nahi dituen eta horren arabera, hiru aktore klabe egon daitezke:

Langileen hizkuntza-ezagutza ahalik eta egokiena lanpostu bakoitzerako.

Leku bakoitzean hizkuntza-erabilera ahalik eta egokiena eta osatuena: tokian tokiko hizkuntza-errealiteratara ahalik eta ondoen egokitzea.

Hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko teknikak, tresnak eta aurrerapen teknologikoak ahalik eta ondoen kudeatzea.



OLA planeko enpresetako planen deskarguak



Oarsoaldea
eskualdearen garapenerako elkartera, b.a.
sociedad de desarrollo comarcal, s.a.

OARSOALDEA BA

Lanpostuetako hizkuntza eskakizunak zehazte aldera, langile guztien euskara maila jasotzen ari dira argazki orokorra izan ahal izateko. Urtea amaitu aurretik argazki osatua izango dute eta honela heldu den urtean lanpostuetako hizkuntza eskakizunen txostena eskura izanda langileen trebakuntza plana zehazteari ekingo diote. Hori eta hizkuntza irizpideen eskuliburuko helburuen adierazleak garatu eta ebaluatu beharko dira.

EMUNeko teknikaria: **Amaia Rodriguez**
Kordinatzailea: **Joxe Luix Agirretxe**



SJJ
SAN JOSE & LOPEZ

SAN JOSE LOPEZ

Planaren inguruko hausnarketarekin bukatu dute urtea. Zuzendariak onartutako hizkuntza irizpideak ez dira gizarteratu eta planaren inguruan arituko den sare zabalago baten premia nabarmendu da. Horiei guztiei nolabaiteko irtenbidea ematen saiatuko dira datozen hilabeteetan eta horren arabera ekintza plana diseinatuko dute datozen hilabeteetarako. Gainerakoan mintzasaio bat emanez bukatu dute urtea; datorren urtera begira saio gehiago eta eztabaida taldeak ere antolatu nahi dituzte: planari beste dinamika bat eman nahi diote.

EMUNeko teknikaria: **Xabier Apaolaza**
Planaren kordinatzailea: **Idoia Ibarzabal**



SOCIEDAD HISPANICA DE DESARROLLO

Aurtengo urtean batez ere bezeroari begirako mezuekin egin dute lan. Errotulazioarekin segitu dute eta bertako zein kanpotik etortzen den kartelderitza euskaraz jartzen jarraitu dute. Aipatzekoa da aurtan bertan egindako etxera banatzen den publizitatea euskara hutsez eta ele bietan bidali dela. Bestalde, aurtan euskara eskoletara jende ugari izena eman du eta heldu den urtean hasiko dira eskola horiek ematen eta interesatutako pertsona horiekin mintzapraktikak eta mintzatratuak prestatzen.

EMUNeko teknikaria: **Amaia Rodriguez**
Planaren kordinatzailea: **Olatz Amonarriz**



LILARRIALDIAK/ LRK emergentziak

sortu dute lantegian. Datorren

mintzasaioekin aurrera jarraitu, ezer ez dakitenentzat modulo bat eman, eta azkenik anbulantzietako hiztegi terminologikoa sortu. Zuzendaritzarekin hainbat bilera egin dituzte planaren norabidea zehazteko.

Urte emankorra izan da aurtengoa: eztabaida saioak eman dira, mintzasaio bat dago martxan, hizkuntza irizpideak onartu ditu Kontseilu Errektoreak eta euskararen berripapera urtean ildo horretatik jarraituta hizkuntza irizpideak gizarteratu nahi dituzte, eztabaida eta

EMUNeko teknikaria: **Xabier Apaolaza**
Larrialdiak: Planaren koordinatzailea: **Jokin Oroz**
LRK emergentziak: Planaren koordinatzailea: **Ainhoa Olaizola**



ASEA BROWN BOVERI S.A.

2009an teknikari aldaketa izan da Niessenen. Jadanik 10 urte bete ditu Euskara Planak eta enpresak euskararekin duen konpromiso mailari eusteko 2009an Euskara Eskuliburua eta Lanpostuetako Euskara Mailak onartu ditu. Erabilerari dagokionez, sail ezberdinetako 20 langilek erabilerara konpromisoak hartu dituzte. Ekimen honen helburua euskararen erabileran eragitea da. Bestalde, Worfast itzulpen memoriari bultzada eman nahi zaio; orain artean egindako hainbat itzulpenekin memoria betetzen hasi gara. Motibazioaren alorrean, Niessengo Taldekako Ginkana jarri zen martxan joan den azaroan. Parte hartzea handia izan da (60 lagunetik gora), eta sortu den dinamikak enpresako bazter guztiak hartu ditu.

EMUNeko teknikaria: **Jon Odriozola**
Planaren koordinatzailea: **Txus Alfonso**



TAJO

Aurtengo urtea diagnostiko zabal bat eginez amaitu dute. Azken urteotan ezagutzak hamar puntu baino gehiago egin du gora, eta euskararen lantegian ezagutza ia %65ekoa da. Bestalde kale neurketa ere egin dute, eta mantendu egin direla ikusten da %38ko erabilerarekin. Aurten gauza positiboen artean, Batzar Nagusia euskaraz egin izana, euskararen aldeko boligrafoak eta egutegiak langileei banatu izana, eta datozen hilabeteetarako antolatu nahi diren hausnarketa saioak aipa daitezke. Hausnarketa honetan planaren inguruan arituko den sare zabalago baten premia nabarmendu da.

EMUNeko teknikaria: **Xabier Apaolaza**
Planaren koordinatzailea: **Ane Aldaraborda**
